

 BOOKTEGI

kalekumea

OIER GUILLAN



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

OIER GUILLAN

Kalekumea

AULESTI-AMOROTO-MUNITIBAR

NEKANEK ATEA ZABALDU DU. Kosta egiten zaio egurrari bultza egitea eta airea sartzen uztea. Harrizko arkua gainean. Arkuaren buruan beste mende bat iradokitzen duen zenbakia. Iraganaren arrastoa harrietan, lur azpitik berreskuratutako labaderoetan, errepide bazterreko bilakatu diren iturrietan. Egurrezko arkuan arreta jarri ezker, ertzetan zulo batzuk ikus daitezke. Behinola bandak sartuta eduki dituen ate pisuagoa irudika liteke haiei begira. Atearen alboan burdinazko borobil txikia, iraganeko beste arrasto bat, bertara heldu eta zaldia edo mandoa lotzeko pausalekua.

Seguru nago horrek ere baduela izenik. Seguru nago hemen guztiak baduela izenik. Nik ahaztuak ditudala ahaztu dudan arren.

Nekaneri so nago. Nekaneri so dago. Berak oraindik ez daki nor den mahaian eserita dagoena, nagoena. Hari so nago. Hari so dago. Tabernako izkinako mahaian, ohi duen bezala. Pantailaren gainetik begiratzen dio guztiari, uzten ditu hitzak orri zurira jausten, bizitzak ekartzen dizkion bezala, bizitzak proposatu ahala. Saiatzen da disimuluar eusten. Ezeroso dirudi, edo inkieto, edo urduri. Teklatua txalapartatzen du, unea luzatuz bezala. Hitzek denborari eutsi nahiko baliote bezala. Tabernan atzera eta aurrera dabilen emakume hori du peskizan. Nekane. Nekane dela badaki. Nekane ez daki oraindik bera nor den. Nekane ez daki oraindik bera nora den. Aurreko egunean telefonoz mintzatu diren arren. Eta idazten du, eta idazten dut, nire hatzetatik beste inor mintzatuko balitz bezala: Eneka dut izena.

Nekanerengana gerturatu behar naizela badakit, minutu kontua dela badakit. Harekin mintzatu behar naiz, mintzatu behar da, gaua iritsi baino lehen. Non lo egin edukitzeko. “Aterpetxea” jartzen du atariaren alboan, hormari iltzatutako burdinazko plaka zulatuan. “Ekandu aterpetxea”, zehatzago. Pantailaren babesetik altxatzen ditu begiak. Nekaneri erreparatzen dio: haren gorputzari, haren mugimenduen koreografiari. Mugimendu haietan azken urratsa emateko behar duen indarra egongo balitz bezala. Nekane arin mugitzen da. Saiatu da haren adina kalkulatzeko. Hirurogeita zazpi? Hirurogeita hamar? Hirurogeita hamahiru? Begi putzuak ditu, arrakalez beteak, kobazuloaren sabaian argia iragaten uzten duten begi pitzatuak bereak. Ile lisoa, luzea; ez dago argi ilea tindatua duen, tindatua izan duen eta kolorea degradatzen hasia

den, edo ile urdinak aurreko bizitzaren lainoari eusten dion. Txikia da, baina hartzen ditu pisuak. Botila kutxak lekuz aldatzen ditu, tortilla egin berrien platerak hegan eroan sukaldetik barrara. “Egingo dut nik”, dio Maitanek.

Maitane. Barran dagoen berrogei urte inguruko emakumea. Haren izena hartzen dute etengabe ahotan barraren ertzeoek. Nekaneren alaba izan zitekeen, baina ez da. Edo ez dela zin egingo luke. Zergatik? Itxuragatik. Pentsakor begiratu die biei pantailaren gainetik. Idatzi du: “Ni naiz aurreiritzietan jausten lehena. Aurreiritzien kontrakoak beti ote gara aurreiritzietan jausten lehenak?”. Izan ere, nork dio alaba izatea zer den? Segur aski Maitanek hartu dio telefonoa bezperan, Nekanerekin pasa baino lehen. Bilboko gaupasan ezagun hark eman zion papertxoan telefono zenbaki finkoa zetorren. Aterpetxekoa. Aterpetxeko harrera den tabernakoa.

Tabernako izkinako mahaian pasa du ordubete, ordenagailuan idazten. Gusturago egingo zukeen mugikorrean, baina pantaila handiak babes zabalagoa eskaintzen dio. Ordubete horretan arretaz erreparatu dio bertako giroari: kale bakarreko herriko taberna bakarra. Edo, bestela esanda, sozializatzeko espazio bakana. Era guztietako pertsonak pasa dira bertatik ordubetea: hamaiketakoa egitera datozen beharginak, jubilatutako kuadrillak, salda bila datozen mendigoizaleak. Goizeko ordu hauetan, gazterik ez. Asteazken zehar ez. Asteburuetan auskalo. Mugimendu etengabea, nolanahi ere. Auto asko dira parean geratzen direnak, tarte bat hartzeko; azkar batean jaitsi, kafea hartu, eta badoaz. Deigarria egin zaio. Segur aski berak ez lioke inoiz erreparatuko errepide bazterreko aterpetxe bati. Tabernaren hondoa, “Komuna” dioten atearen alboan, “Logelak” dioten beste txartel bat. Zabaldu egin da, bat-batean.

“Maitea”, egin du oihu Maitanek. “Zer moduz altxatu gara gaur?”. “Tren batek gainetik pasa izan balit bezala”, dio heldu berriak, Leonard Cohen ahotsaz. “Baina ondo”, berehala, bat-batean bradpitturik. Ausazko kazetaritza egin nahi nuke, egin nahi luke, edonork duelako istorio bat kontatzeko. Dibagatzen jarraitu nahi dut, jarraitu nahi du, ekidin ezina dena ekiditearren.

Herrira iritsita Nekanegatik galdetu zuen kale nagusiko dendan, denda bakarrean: “Nekane?”. “Bai, aterpetxekoa”. “A, bai, kalekumea”. Jakin nahi nuke kalekumea izatea zer den, noren hotsean, noren begietan.

“BAINA NOLA JAKIN DUZU...?”, harridura Enekak.

Maitanek barre egin du.

“Hau ez da hiria. Ezinezkoa da oharkabeen pasatzea”.

Eneka lotsatu egin da.

“Zer hartzen duzu?”, berriz, Maitanek.

“Ura”.

“Ura soilik?”.

“Bai. Iturrikoa”.

Maitanek hartu du basoa eta kalera irten da. Minutura bueltatu da baso bat ur duela.

“Iturrikoa, zera esan nahi nuen...”.

“Hau hobeagoa da. Nekane! Hemen dago berria”. Nekanek ipurtargiak ekarri ditu begietara.

Hirurogei? Hirurogeita hamar?

“LEHENENGO SOLAIRUAN hiru gela daude. Ezkerrekoan Leo dago. Lehen ikusi duzun gizona. Eskumakoan Eureka, bere alabarekin. Eureka ere hirikoa da”.

“Eureka da bere izena?”.

“Ez. Baina axola al dio horrek? Goiko solairuan beste bi gela daude, eta egongela txiki bat, sukalde are txikiago batekin. Ondoko geletan, ezkerrean Lokatz, eta eskumakoan ni”.

“Lokatz? Hori ere ez da bere izena, ala?”.

“Hara, argia da gure gaztea”.

“Lokatz... Gaur ez dut hemendik ikusi, ezta?”.

“Ez eta ikusiko ere. Solairu bakoitzean komunak, eta dutxak”.

“Eta... Denok bizi zarete hemen?”.

“Bizi, edo... Bai, hala esan liteke”.

“Baina hau ez al da aterpetxea?”.

“Kar-kar... Nork esan duzu eman zizula kontaktua?”.

“Txiprek”.

“Hara, Txipre! Zenbat denbora, alajaina! Zer moduz dago?”.

“Egia esan... Ez dut gehiegi ezagutzen. Festa pare bat azkenaldian. Baina... Ez dakit... haietan ondo ikusten zitzaien”.

“Ez dut sekula inor alaiagorik ezagutu. Jarraitzen du plataforma zapata horietara igotzen?”.

“Bai, uste dut baietz”.

Buruan zeozerk klak egin dio.

“Txipre ez da bere benetako izena, ezta?”.

“Ea, ez zenuen pentsatuko...”.

“Ez, baina, zera esan nahi dut...”.

“Bai, bai. Ulertu duzu”. Basoak lehertzeko abildadea berea, bustita egon berri direla sumatu gabe. “Nekanez aterpea eskaintzen du, eta etxea ere bada, bai. Baina ez duzu leku hau Bookingen topatuko. Zuk oraingoz nire gelan egingo duzu lo”.

“Eta Nekane?”.

“A, bai. Bera ere bertan bizi da. Tabernatik aterpetxera ematen duen atea zeharkatu, eta hortxe bada beste apartamendu bat. Hori da berea”.

“Nik... Zera... Txiprek aipatu zidan dirua ez zela arazorik izango, oraindik ere ez dut ulertzen nola...”.

“Lasai”. Kristalezko basoen *castell* miresgarriak. “Badakizu kafeak ateratzen?”.

“ETA SARTU BEHARKO BANU?”.

“Atzeko atea beti dago zabalik. Zuzenean aterpetxeko logeletara ematen du. Nahi izanez gero, bertatik sartu eta logelara joan zaitezke tabernatik igaro gabe”.

“Alegia, inork ikusi gabe?”.

“Alegia, inork ikusi gabe”.

“Ondo da. Eta gauean?”.

“Gauean etortzeko asmorik baduzu, ala?”.

“Ohitura izango da”.

“Hemen gauez ez dago zeregin askorik. Larunbaten bat edo beste kenduta. Tira. Gauez etorri ezkerro bada giltza bat hemen ezkutuan”.

Loreontzi handi bat erakutsi dio.

“Ez dugu guk giltzarik izango?”.

“Ez. Nekaneren baldintzetako bat da. Giltza bakarra denontzat. Hona bildu gara denok istorio propio bat dugulako, zama arintzeko behar bat. Baina talde bat gara, ikasi behar dugu elkarrekin antolatzen, elkarrekin konfiatzen”.

“Ez da ba erraza izango, horrelako friki kuadrilla bat elkarren eskutik aritzea”. Umorez nahi zuen bota, baina ahots tonuak nahi baino gehiago egin dio saminera. Maitanek sumatu duelakoan dago.

“Ordu erdi barri ixten dut barra, nahiko duzu garagardo bat?”.

HASI DA egunerokoan jendea ezagutzen. Lehen aurpegi iragankorrak zirenak, orain paisaiaren parte dira. Aitor Baratzek hutsa hartzen du, baina benetakoa. Hori ere ikasi behar izan du. Hutsa taza txikiaren erdira ez da iristen. Aitorrek kokoei buruz hitz egin dio: baratze ekologikoan eragiten duten intsektuak, edo hala iruditu zaio behintzat. Ezagutzen ez dituen hitzen zerrendan apuntatu du.

Iruñekoa zela esana zioten, baina berak berehala zuzendu dio: “Ez, Irungoa”. Harrigarria bada ere, antzerkia egin zuen behinola, duela berrogei bat urte. “Hura ez zen niretzat”. Kalekumea, beraz. “Euskara bertan ikasi nuen nik, kalean batez ere. Orain semea dedikatzen da espektakuluaren mundura”. Zikloez mintzatu zaio gero, luze, baratzea nola kudeatzen duen azaltzeko. Nire begiradak bizitzaren zikloetara egin du berehala; lurak orainaldira lotzen gaitu, baina hura maneiatzeko ezinbestekoa da ezusteko mugimenduak surfeatzea.

EBAKIA, ESNE HOTZAREKIN. Martinak udaleko lanetik hartu duen atsedenal dian da. “Kalekumea bada ere baserrian bizi dena, baina baserriko bizitza ez daramana. Alegia, ez soilik kale etxetan bizi dena”. “Nola da hori?”. “Hara, baserria etxe soil gisa erabiltzen dutenak ere kalekumeak izan daitezke. Animaliarik ez bada ez da baserririk”. Ez zuen orain arte horrelakorik entzun. “Eta baratzea?”. “Baratzea lantzeko ere animaliak erabili ziren behinola, hortik dator dena. Baserria animaliak dira. Ez badira esnetarako behiak, edo haragitarakoak, ahuntzak edo zaldiak izango dira, edo zakurrak, oiloak... baina animaliak”.

“BUKATU DUZU?”, Nekaneren ahotsak ezustean hartu du. Pantailatik altxa ditu begiak.

“Bai; tira, ez, hau ez dakit sekula amaitzen den...”.

“Lasai, ez didazu azalpenik eman behar. Etor zaitezke nirekin?”.

Bere atzetik abiatu da, jakin gabe nora. Zeharkatu dute kale bakarreko herria. Espaloi estuan zehar mundu osoa: eliza noski, liburutegi txikia, eta alboan udaletxea. Behinola taberna ugari izan zituen herriak, orain astean zehar aterpetxekoa, eta asteburuetan besteren bat. Plaza giro dago beti hala ere, jendeak bilatzen ditu, gorputz hutsez, denbora partekatzeko espazioak.

“Zenbat jende bizi da hemen?”.

“Hemen? Seiehun inguru”.

“Ez du ematen”.

“Parte handi bat baserrietan bizi da”.

Kanposantu ondoko zidorretik abiatu dira. Bera Nekaneren atzetik, pausoari eutsiz. Zer esan ez dakienean babesleku ohi zaio ofizioa. Berbak ahora ez datozkionean, lanabes dira galderak. Edonork du istorio bat, edonork nahi luke entzuna izan. Baina Nekane ez da erraz jausten.

“Zu ere baserrikoa zara?”.

“Izan nintzen. Baina kalekumea. Hala esaterik bada, kale bakarreko herrian”. Barre egin duela iruditzen zaio, baina zidorra estua da, haren bizkarra ikusten du soilik. “Hala esaten zidaten beti txikitan. Kalekumea. Baina hemen kalekume orok daki zer den belarra egitea”.

Berak ez, esan gabe doa. Isilik gordetzen ditu gogoak ulertzen ez dituenak.

Iritsi dira, antza. Ataka pasatzeko ere komeriak. Saiatu da irekitzen, bidea zabaltzeko lotura askatzen, baina kosta egin zaio. “Utzi niri”, esan dio Nekanek. Eneka lotsagorritu egin da, beti iruditzen izan zaio oso konplexua gauza sinpleen logika. Urduri jartzen da eskuekin edozer egin behar duenean. Nor eta bera, unibertsitatean festa bakar bat ere galdu gabe gelako notarik onenak atera zituena. Nekaneren ahotsak ez du zirkinik egin, hala ere; ez isekaz, ez epai airez ere.

Ataka itxi eta basora sartu dira. Enekek guztiari erreparatzen dio, hitzak topatu nahian: zer esan, zer adierazi, bertan egoteko eskubidea eskuratu guran. “Polita da hau”, hitzak plastilinazkoak egin zaizkio ahoan. Malda txiki bat igo dute, zuhaitzek eta sasiek inguratutik. “Sasia kendu behar da”, esan dio Nekanek, “baina nik ezin dut, eta oraintxe ez dut inori ordaintzeko dirurik”. Enekek ez daki iruzkin hutsa den edo ezkutuko proposamena, isilik geratu da badaezpada. Lurra estaltzen duen geruzari erreparatu dio, jakin gabe belarra den, sasia, edo lorategia. Egin dute gora, bertan bada soilgune txiki bat. Baso puska bat dute begi aurrean, hesiak inguratutik, egurra eta alanbrea, sarea tarteka. Begiak paisaia berrira ohitzen saiatu da. Apur bat aurrerago behera egiten du mendiak; hezeago, ilunago dago bertan, ez du eguzkiak sarri bainatzen zokoa. “Hortxe mugarria, bertan hasten da hurrengo herria”. Erreparatu dio harrizko eskulturari, edo berak eskultura dela liokeen ipotx harrizkoari. “Alde honetan ez dago hesirik”, dio Enekek, baso itxia du aurrean. “Egon bai”, dio Nekanek. Pozik Eneka, komentarioarekin asmatu duelakoan. Nekanek sasi artera eraman ditu eskuak, tira egin du, arnasak traba egin dio. Lagundu dio berak ahal izan duen moduan, zutik jarri dute makila, bertatik zintzilik alanbre herdoildua. “Hau ere konpondu beharko da ba”, Nekanek.

Zokotik gora bada beste muino bat. “Hemen egoten dira”, “Nortzuk?”, “Ehiztariak”. Oraingoan bai, ahotsa kolorez aldatu zaiola esango luke. “Ezagunak?”, “Batek jakin”. Nekanek zeozer hartu du lurretik, garagardo lata bat, kontserba ontzi bat. “Kabroiak”, ez zuen halako barbarik espero, ez da ausartu beste ezer esaten. Egin dute berriz basoan behera. Soilgunetik gertu bada txoko bat, zeinean hesia garbi dagoen. Bertatik dauden bistak zabalak dira, ez da zuhaitzik aurrean. Orduan jabetu da basoak duen altueraz. Urrunean putzu urdina suma daiteke, haragoko mendien arteko tartetik. “Hemen ere”, “Ehiztariak?”, “Bai”. Hasi zaizkio begiak paisaiara egokitzen, hasia da naturaren ordenan akatsak sumatzen: hesiak adarrak ditu zutik lotuta, txabola eraiki nahi izan duten haurren esku traketsek jarriak nola. “Begira hau”, hesiari loturiko sarean zuloa. “Hautsita dago”, baieztatu du Enekek, “Ez”, Nekanek ukitzen ditu ertzak, “Ebakia”, “Zergatik?”, “Zakurrak pasatzen dira bertatik haiek tiro egin ostean, ehizakien bila”. Begiratu du hesitik aurrera, gora ondoren; txori bat ikusi du, beste bat entzun, ez luke jakingo esaten zer diren. Arranoa ikusiko balu, ustez, jakingo luke ezberdintzen, besterik ez. “Goazen”, eraman dituzte oinak berriz ere zidorretik behera. Naturaren semiotika, ezin du ekidin hitzak bilatzea,

hasia da ingurua dekodetzen. Ez da lengoaia, denbora da, begiratzeari eskaintzen zaion tarte. “Zuhaitz asko daude erorita”, “Gaixorik”; “Pinuak?”, “Bai”. “Eta ezin da ezer egin? Hemendik eraman, edo...”, “Dirua, hori ere”. Bidearen erdira jausi dira hainbat, haien gaintetik pasa behar izan dira. “Eta hauek?”, orain arte ez die erreparatu, ez du jakin ikusten: makila finak beste makila batzuei loturik. “Haritza”, hauek haztean ez dute uzten inguruan sasirik jaiotzen. Enekari arraroa egin zaio, beste behin ere ez da ausartu ezer esaten. “Zuk jarri dituzu?”, “Bai, azken urteetan. Ez ditut nik goian ikusiko”, hunkidura halako zerbait, hotzikara leuna. Nork ikusiko ditu orduan? Berak dakiela, Nekanek ez du ondorengorik, ez ahaide gertukorik. Zertarako, norentzat orduan? Galdera trabeska geratu zaio eztarrian.

“BADAGO MODU BAT SASIA GARBITZEKO”, diost tabernan Maitanek.

“Zein modu?”.

“Ahuntza jartzea”.

“Barkatu?”.

“Ahuntza. Ahuntza makila batera lotzen duzu soka batekin, eta soka iristen den inguru guztiko larra jango dizu”.

“A. Ba ez dirudi ideia txarra”.

“Eta ez da”.

“Orduan?”.

“Ahuntzaren makila tarteka lekuz aldatu behar da. Eta ahuntza zaindu, esan gabe doa”.

“Lana hori ere”.

“Itzela. Baserrian lanak beti lana dakar”.

MAITANEK telebista azpian dagoen emakume kuadrillari erreparatu dio. “Haiengana noa, aterako diozu honi behar duena?”. Berrogei urte inguruko gizona zain, “Alkoholik gabekoa eta infusioa”. “Regaminta?”, “Bai, ikasi duzu honezkero”. Laudorioa iruditu zaio, hasi da prestatzen infusioak dakarren parafernalia guztia: katilua, teontzi txikia, koladorea, hostoak bota... “Badakizu? Nire gurasoen kezka handi bat sasia da”. Harrituta Eneka. “Zer esan nahi duzu?”. “Lehen behar handia egiten genuen landa garbirik mantentzeko. Baserriak hustu egin diren heinean, larreak mantendu dituztenek abereak eramatea eskatzen izan digute besteoi. Horrela egon gara luzaro. Auzoan azkena izan zen gure baserria, eta animaliak eramaten genituen batera eta bestera, larreak garbitzera”. Isilunea. “Orain sasiak eta belar txarrak janda daude inguruak, eta lehengo bideak”. Isilunea. “Zuhaitzak ere asko hazi dira. Lehen inguruak ikusten ziren, larreak zaintzen zirelako urrunera ikus zitekeen”. Isilunea. “San Juan suak eta dena, erronka ere bazen nork handiagoa egingo”. Begiratu dio alkoholik gabekoari. “Aita duzu?”, atzera so Enekak. “Bai”. “Oso heldua?”, “Hala dirudi, ezta? Baina ez, gaixo dago”, ahotsean dardara. Enekak infusioa jarri dio alboan, baina bera ez da mugitu. “Eta zergatik dute sasia kezka gurasoek?”. Harriduraz so egin dio gizonak, “Horrexegatik ba. Belaunaldi berriek ez dutelako kenduko. Baserria bertan bizitzeko besterik ez dute nahi, hala nahi dutenek”.

ATERPETXE ONDOKO BARATZEA prestatzera eraman ditu Nekane. Belar txarrak kendu behar dituzte lehenik. Erakutsi die nola: eskuz hartu behar dute sorta, eskumuturra jiratu eta tira, sustrai eta guzti atera behar dituzte. Lurra garbi geratu behar da. “Ez dago honetarako makinarik?”, Enekak. “Hemen ez. Ekin, ni bazkaria egitera noa”, Nekane, “dagoeneko ezin naiz horrela makurtu”.

Etxeko bostak dira beharginak. Enekari erraza izango dela iruditu zaio. Hasi dira erritmo onean, baina berak ez du luze iraun. Udaberriko eguzkia gozoa da, baina kaskoa berotzen hasten da haren pean luzez egonez gero. Eureka kantuan hasi da, giroa alaitu nahian, baina hiru estribillo iraun dio arnasak, besteoi koruak beste. Leo kementsu hasi da, bere gorpuzkeraren indarra nabarmendu nahian edo, “Horrela nekatuko haiz berehala”, dio Maitane, eta zinez hala izan da. Gero eta gutxiago irauten dio makurraldiak. Lokatz teknika perfektzionatzen hasi da, belaunak tolestuz egiten du behera, pisua hartzera joango balitz bezala, tabernako edarien kutxak nola. Bazkalordurako akiturik daude denak, isilik eseri dira mahaiaren bueltan.

“Hurrengo lurrari buelta ematea izango da, erabili duzue inoiz aitzurra?”, umoretsu Nekane.

“Zenbat aitzur daude?”.

“Nahikoak”.

“Eta gero?”.

“Gero buelta emandako lurra txikitzea, azpitik gora ekarritako lurraren hezetasuna lehortzean”.

“Eta gero?”.

“Haziak landatzea”.

“Eta gero?”.

“Ureztatzea”.

“Eta gero?”.

“Gero? Gerokoak”.

ZURITOA LIMOIAREKIN deskubritu duenetik, ezin du besterik hartu. “Ona da hau gero”, dio Klaudiok, “lehen ezin nuen jasan, baina urteak...”. Hirurogeita bi dituela esan dio berehala. “Eta zu ere baserrikoa”. “Bai, edo...”. “Ze ba?”. “Gurasoak hil arte bai. Han ezkerretik joanda, bide amaierakoa da gurea. Ederra oso. Bizitza osoa eman dut han, orain familia ere bertan bizi gara. Bi alaba ditut”, harro, “Berandu egin nintzen guraso”. “Eta jada ez duzue ezer, animaliarik, baratzerik edo zuhaiztirik?”. “Ez”. Pentsakor geratu da. “Oso akordu politak ditut garai hartaz, baina orduan beharra besterik ez zen. Gurasoek esana zidaten ikasteko, baserriak ez zuela etorkizunik. Haiek bai jakin. Gobernuek erraztasunak jartzen zizkieten orduan baserritarrei, baina ez aurrera egiteko, baizik eta baserria uzteko. Edo enpresa agrikola handia egin, edo desagertu. Belaunaldi hura zahartu ahala desagertu zen mundu hori. Guk lagundu bai, baina, lehenik ikasketak egin bitartean, eta gero hirian behar egin bitartean, familia propioa osatu arte. Seme-alabekin bai, akabo. Ordutik jarraitzen zuenak zaletasun modura egiten zuen, batez ere”. Telebistak baino irudi gehiago gordetzen dituzte elkarrizketari eutsi nahi dioten zuritoek. “Zu orain kalekumea zara?”, galdetu dio Enekak. “Ez dakit. Baina hara, badakizu zertan sumatzen den kalekumea izatea zer den?”. “Zertan?”. “Guk arazo bat genuenean, errepidean zuloa adibidez, berehala hasten ginen pentsatzen nola konpondu, eta batzuetan ondokoekin elkar hartzen genuen; auzolana erreala zen arazo bat edo beste konpontzeko orduan. Oraingo belaunaldiek errepidean zulo bat ikusten badute, haserretu eta berehala udaletxera deitzen dute. Gu autonomoagoak ginen, ez ginen inoren zain”. Dzanga, eta badoa.

“ZUK JAKINGO DUZU EGITEN” galdera bat izan zitekeen, baina baieztapenaren traza hartu dio.

“Egin zer?”.

“Txartel bat”.

Ezustea besteko poza.

“Zer egin behar dut?”.

“Txartel bat dioena: *Eremu pribatua. Debekatua pasatzea*”. Isilik geratu da. “Jarri gazteleraz ere. *Prohibido el paso*”.

“Atakan jartzeko, ezta?”.

“Bai”.

“Baina hau txapa batean, edo antzekoren batean inprimatu beharko da... Euriagatik eta”.

Nekanez ez du ezer esan. Enekek hori bere lana dela ulertu du.

BASOTIK DOA, IBILIAN. Hirian hori du maite, norabiderik gabe ibiltzea, kale artean galtzea gauza ederra izan daitekeelako, eta bideko xehetasunei, pertsoneri, erreparatzea. Mendi alde honetan, orde, beldurra eman dio galtzeak, norabide argirik ez izateak. Galdetu du ea nondik egin lezakeen ez galtzeko moduko ibilaldia. Bidea jarraitu, besterik ez du. Hala ere, basoaren bakardadean, itzal batek jan dizkio barrenak. Kostata eusten dio irudimenari, azkarregi doa aburua. Eta amilduko balitz? Eta orkatila okertuko balu? Begiratu die mugikorrek murratxoak: koberturarik ez da apenas. Ilunabarra heldu ezkerre, jakingo dute GPSaz bera topatzen? Ez dio inori argi esan zein den hartu duen bidea. Ez dago lekukorik.

Tamainako gomutetan dabilela, oreinak zeharkatu du bidea. Jauzi egin du, bi salto eman eta desagertu egin da bistatik. Ahaztu egin ditu kolpe batez beldurrak. Bi segundoko zalantzaren ostean, haren atzetik joan da korrika. Beranduegi. Ez du baso itxian mugimendurik sumatzen. Ez ditu inoiz oso gustuko izan hitz jolasak, baina oreina oraina da.

“MOZTU ALANBRE ZATI BAT”. Maitane altuera probatzen ari da txartelarekin. “Ondo. Beste bat. Beste hiru, hobe esanda”.

Moztu ditu. “Ondo ikusten da, ezta?”.

“Bai. Ea zenbat irauten duen”.

“Zer ba?”.

“Ehiztariek askotan kendu egiten dituzte txartelak. Horrela, gero norbaitek barruan harrapatzen baditu, txartelik ez zegoela esaten dute”.

“Lasai. Ordenagailuan daukat. Egingo dugu beste bat”. Isilik geratu da, zalantzan bezala, baina azkenean, esan egin du, “Zerbaiterako balio behar zuen kalekumea izateak”.

MAKILA EMAN DIOTEN EGUNEAN, hunkitu egin da. Segur aski besteentzat ez zen beste munduko ezer izango, are gutxiago opari bat, baina berak bertakotu dela sentitu du lehenengo aldiz. “Zer da?”. “Urritza”. “Zuk egin duzu?”, Nekaneri. “Bai”. “Mendian hobeto ibiltzeko, ezta?”. “Eta animaliak uxatzeko. Ez joan inoiz menditik makilarik gabe”.

“JANTZI. BAGOAZ”.

“Nora?”.

“Basora”.

“Zerbait gertatzen da?”.

“Auto bat dago aparkatua atakaren parean. Bizilagun batek deitu dit”.

Jantzi du eskura duen lehena, mendiko botak plastikoko poltsa batean sartu. Aterpetxearen atarian du zain Maitane, motorra martxan. Isilik doaz mendian gora, Enekak oraindik ere ez ditu guztiz zabaldu begiak.

“Zuk kafea hartu duzu?”.

“Gero”.

Atakaren parera iritsi dira. Autoa aparkatu dute bide bazterrean, bertan dagoen Land Roverraren atzean. Maitane atakara hurbildu da. Itxita dago.

“Ikusten hau?”. Makila txiki bat lurrean. “Nekane jarri ohi du. Honek esan nahi du norbait barruan dagoela”.

Enekak arretaz begiratzen du ezpala. Berehala mugikorra atera du.

“Zertan ari zara?”, Maitanek.

Joan da Land Roverraren parera. Argazkiak atera dizkio matrikulari.

Badoaz barrura. Zidorretik gora egin dute oinez, bata bestearen atzetik. Eguzkiak zuhaitzak laztantzen ditu, baita bide erdian erori direnak ere. Gutxienez badira bat edo bi aurreko aldian ez zeudenak, bidea oztopatzen. “Kontuz”, dio Maitanek. Enekari dar-dar egiten dio mugikorrak eskuan, bide erdian daudela argazki kamera prestatu du. “Han dago”, xuxurlatu du Maitanek. Gerturatu zaizkio atzetik, Enekak argazkiak atera ditu. Ehiztariak ezustea hartu du, baina ez du ezer esan. Begira geratu zaio Enekari, argazkiak ateratzen dituen bitartean. Bi eskuekin heltzen dio kamerari, argazkiak eskuetako dardararekin mugituak atera ez daitezen.

“Egun on”.

“Egun on”.

“Hau terreno pribatua da. Bertatik ateratzeko eskatu behar dizugu”.

Eskopeta sarean pausatua. Ez du zirkinik egin.

“Hau mendia da. Ez diot inori kalterik egiten”.

“Berriz ere esango dizut. Hau eremu pribatua da, eta ezin da sartu. Txartelak argi jartzen du atarian”.

Enekak audio grabagailua piztu du mugikorrean.

“Jabearen baimena daukat”.

“Jabeak iritziz aldatu du”.

“Eta nortzuk zarete zuek hori esateko?”.

“Bere partez gatoz”.

“Zer moduz dago?”.

“Gaixo”.

“Bai, badakit. Aspalditik ezagutzen dut. Baita zu ere. Zuk berarekin egiten duzu lan”.

“Bai”.

“Berak dio ezin dudala edo zuek diozue?”.

“Berak dio”.

“Ba esan dezala”.

“Ezin du, gaixo dago”.

“Ba nik hemen egoteko eskubidea daukat”.

Isilune ezerosoa.

“Ez diot inori kalterik egiten. Hau mendia da”, errepikatu du. Ez dirudi askoz argumentu gehiagorik duenik. “Askotan egon izan naiz hemen, eta ez dit inoiz arazorik jarri”, tematu da.

“Ez dugu zertan azalpenik eman. Eskatu dizugu joateko, ez dago besterik”.

Ehiztariak ez du mugitzeko zirkinik egin. Tiro hotsak urrunean. Balirudike berak ere entzun dituela. Isilik dago, baina ez da mugitzen. Enekak ezagutzen ditu pentsamenduaren tempoak, elkarrizketa batzuk egindakoa da. Ehiztaria ere hausnarrean da, duela egun batzuk Nekanek behiez adierazi zion bezala. Ez zuen lehenago sekula pentsatu nondik datorren hausnartu hitza, zein ote den bere jatorrizko esanahia.

“Eta zuek zer nolako baimena duzue niri hori esateko?”.

“Barkatu?”, Maitanek.

“Baduzue aldundiaren baimenik niri hori esateko?”.

“Esan dizut lehen. Hau jabetza pribatua da”.

“Bai, baina nik hemen egoteko eskubidea dut. Hau mendia da, eta ehizan egin dezaket, legala da. Zuek ez duzue ni hemendik botatzeko eskubiderik, aldundiaren baimen batekin ez bada”.

Pentsakor geratu da Maitane. Eneka, ordea, sutzen hasi da. Ezin izan du inoiz jasan harrokeria, are gutxiago gizonkote baten ahotik baldin badator.

“Begira, hau grabagailu bat da. Jakin nahi nuke zein den zure izena”.

“Ez dizut esango”.

“Zure ahotsa hemen grabatua dago. Ondo ulertu nahi dut esan duzuna. Guk joateko eskatu arren, hemen egoteko baimena duzula diozu”.

“Bai”.

“Zein da zure izena?”.

“Ez dizut esango”.

“Zure kotxea hor behean dagoena da?”.

Isilik geratu da. Tiro hots gehiago urrunean.

“Eneka...”, ahapeka Maitanek, lasaitzeko adierazi nahi duen tonuaz. Maitanek berak heldu dio berriz. “Begira, zuek badituzue lekuak ehizarako. Badaude postuak, eta badaude zozketak, argi eta garbi esan dizut baso honen jabeak ez duela nahi zu hemen egotea”.

“Ez diot inori kalterik egiten. Denbora asko daramat hona etortzen”.

“Bai. Baina hori bukatu da, eta listo”.

Gizona ez da mugitzen.

“Baimena behar duzue ni bertatik botatzeko”.

“Begira...”, Enekari suak barrenak hartu dizkio.

“Eneka...”, Maitanek.

“...zure ahotsa grabatua dugu, eta zure autoaren matrikula. Poliziari deitu behar badiogu deituko diogu”. Ez zuen sekula pentsatuko polizia hitza aipatuko zuenik.

“Joango naiz. Baina ez duzue honetarako eskubiderik”.

Hartu ditu trasteak, eta badoa apurka. Enekak mugikorrarekin jarraitu dio metro batzuetara, nola joaten den grabatzeko. Egin du atakara, igo da autora. Maitane atzean geratu da.

Ospa egin duenean, Maitane hurbildu zaio. “Eneka, hau ez zen beharrezkoa”. Enekak nahiago zukeen eskerrak ematea, eskura dituen tresnak erabili izana kausa noble baten alde. “Segur aski herrikoa da, eta ezaguna, Nekaneri ez zaio komeni herrikoekin gaizkiegi bukatzea”. “Baina orduan zergatik bidali gaitu hona? “Segur aski inoiz baimena emango zien, edo ezikusiarena egingo zuen besterik gabe, ezin ziolako kontu honi erreparatu, edo haren gurasoek ere betidanik egin izan dituztelako horrelakoak. Baina garaia aldatu dira, Nekane gaixo dago, eta nik uste hainbat kontu bideratuak utzi nahi dituela. Berez ez ditu ehiztariak inoiz gogoko izan”.

Erruaren ziztada sentitu du Enekak tripetan. Akilesen orpoa. Gezia orkatilan, suak barrenak hartzen dizkionean egoera injustu baten, edozein egoera injusturen aurrean.

EGUNETIK EGUNERA azkarrago doa beheraldia. Harritu egin du horrek. Nekane ozta-ozta jartzen da zutik. Etxekoek txandaka pasatzen dituzte arratsaldeak berarekin, goizean tabernan txanda egin ostean. Lan bat gehitu berri zaio lanari. Baina hau ezberdina da. Aulki gurpildunean eseri du, besazpietatik heldu eta indar eginda. Suabe, mantso eta tentuz egiten saiatu da. Zabaldu dizkio aulkiari zolak, bertan pausatu ditu Nekaneren oinak. “Ondo zaude?”. “Bai”. Egia izan ez arren. Baina burua ondo du Nekanek, ondoegi. Enekak eskua jarri dio sorbaldan, ukitzeko baimena eskatuz bezala. Nekane ezustean harrapatu du keinuak, baina ez du ezer esan. Begietara so egin diote elkarri, ezer esateko beharrik gabe. Ondoren, eskuarekin ukitu labur parean egin dizkio Enekari, uneari amaiera emanez. Korapiloa du eztarrian Enekak. Ohituta dago ezagutu berri duen gorputz bat maitatzen, hau gauza bera ote da? Ukimena beste maila batean, baina maitasuna azkenean?

EHIZA LEGEEN LETRA TXIKIA ikertzekotan geratu naiz, geratu da. Hainbeste egin dezake, egin dezaket. Eskertu dio Maitanek, “Nekane ez dago jada ez udaletarako ez bulegoetarako”. Sarean hasi da ikertzen. Arrotza zaio guztia. Ehiztariak beraiena ez den eremuetan ehiza egin dezakete, baldin eta distantzia bat gordetzen badute etxeetatik eta jendea egon daitekeen lekuetatik. Beldurra eman dio, bat-batean, mendian ibiltzeak. Akaso arrazoa zuen ehiztariak? Zer arraio, nahi dutena nahi duten moduan egin dezakete? Larridura bat-batean, ulertzen ez duen mundu batean murgiltzen ari den sentsazioa, beste hizkuntza bat ikasten hastean sentitzen den zorabioa. Hitzek ez dutelako sekula esaten soilik hitzek diotena.

Maitane ere kezkatua geratu da informazioarekin. “Kaka, posible ote? Galdetu beharko diogu dakien norbaiti”. Tabernako bezeroei luzatu die begirada: emakume jubilatutako talde bat solasean, gizon bat ardo batekin eskuan telebistari begira, laneko arrokekin hamaiketakoak jaten ari den gizon gazte talde bat. Leo bakarka, egunkaria irakurtzen. “Ez, nik deituko dut aldundira”. “Benetan?”. Barre egin du Maitanek, “Sumatzen da hirikoa zarela”. “Ohituta nago bizitza errazten dizun burokraziaren labirintoan barrena”. Ez daki Maitanek ironia harrapatu duen.

Hasi da batera eta bestera deitzen. Gai hauei buruz aldundiko guardarekin hitz egin behar duela jakin du. Guardak Martin omen du izena. Baina Martinek ez dio telefonoa hartzen. Ez goizean, ez eguerdian, ez arratsaldean, ez eta biharamunean ere. Beste bulego batekin saiatu da. Martin aste honetan oportretan dago. Guardia bakarra dago probintzia osoan, ala? Mezua utzi dio. Astelehenean deituko dio.

“EZIN DITUT JASAN EHIZTARIAK”. Kafesne deskafeinatua esne hotzarekin. Karmelek berrogei urte daramatza Gerizpe baserrian bizitzen. Familia osatu du bertan, alargundu da, baina, era berean, bada eta beti izango da kanpoko. “Behin gertatu zitzaidan haur txikiarekin nengoela gure terrenoan, eta tiroak gertu entzun nituela. Kexaka hurbildu nintzen, zer da hau, nire etxean haurrarekin kanpoan ezin banaiz egon! Entzutekoa zen harrokeria. Munduaren jabe direla uste dute hauek”. Haserreak hartu dizkio bestela irribarretsu ohi diren berbak. “Bere auto eta zakurrez betetzen dute mendi bidea, batzuetan ez dago pasatzerik ere. Ingurua zaborrez betetzen dute. Sarritan egin izan diet aurre. Baina emakumea naiz, sekula ezer ulertuko ez duen kalekumea. Badakizu? Batzuetan etxeetako leihoetara egin izan dute tiro ehiztarien tribukoek abisu bezala, kontra egiten zaienean, haserretzean. Inoiz gertatu izan dira istripuak bala galduekin ere”.

AZKENEAN HARRAPATU DU Martin, guarda. Kostata, baina telefonoaren bestaldean da. Azaldu dizkio kontuak, ehiztariak esandakoak. Enekak bere ezjakintza aitortu dio berehala, badaezpada. “Debeku txartela jarrita baduzue ez dago zalantzarik, ezin du bertara sartu, berdin dio zer dioen”, Martinek. Lasaitua hartu du Enekak. Telefonoaz bestaldera, Martinen hasierako tonua oldarkorra dela iruditu zaio, baina arindu da amiñi bat. “Galdera bat egin dezaket?”. “Bai”. “Zergatik ez duzue nahi ehiztariak bertatik ibiltzea?”. Zer axola dio, pentsatu du Enekak, legea behingoagatik alde baldin badute. Erantzun baten zain dago guarda, ordea. “Jabeak jada ez du nahi”, ez da ausartu esaten ehizaren kontrakorik, “arrazoi pertsonalak”. Telefonoa eskegita, bere buruari galdetu dio, zenbat politika ote dagoen historian arrazoi pertsonalen atzean galdurik.

ILUNTZEKO GARAGARDO KAÑOIA. Ekainek herabe aitortu dio bera ere ehiztaria dela. Enekek gizonak gustuko balitu, maitemindu egingo litzateke harekin. Ez da ehiztariez solastean irudikatu izan duen prototipoa, are gutxiago potrotipoa. “Oso ederra da harremana txakurrekin, mendian elkarrekin ibiltzea. Nik normalean gustuko dut galeperretan ibiltzea. Saiatzen naiz naturarekin adeitsu izaten, eta natura disfrutatzen”. Arraro egiten zaio, baina badaki egia dela, bere egia bai bederen. Ehizak zentzu bat edukiko zuen behinola, hala pentsatu nahi du. Zer bazkalduaren sinonimo zenean, berak historia webguneetan baino atzeman ezin duen iraganean. “Gaur egun basurdeak eta orkatzak kontrolatzeko ezinbestekoak dira ehiztariak, adibidez. Baratzeak eta beste suntsitzen dituzte, istripuak probokatu... Aldundiak behar gaitu”.

“Eta horren aitzakian zenbat matraka”, bat-batean Maitanek barraren atzetik, solasaldi guztiei beti adi.

ZILARRAK UXATZEN DITU TXORIAK. Ezin izan dio ekidin erreparatzeari. Deigarria egiten zaio. Inguruetan ibiltzera joaten den bakoitzean katalogoa egiten du. Orduko hartan ordubete inguru egin zuen oinez, maldan gora. Beharra zuen nekatzeko, izerditzeko, pentsamenduak arnasarekin batera oxigenatzeko. Goian berdegune zabalak, ez zuen espero. Eukalipto basoak pasa ostean, zuhaitz erori oldeak bazterretan, eta zelai zabalak hortxe mendi gainean. Itsasoa ikusten zen muino batean baratzea. Gizon bat alkandorarik gabe bertan lanean. Haren zakurra hurbildu zaio, Gorbeiaiko artzaina dela ikasi du; beldur izan da hasieran baina lagunkoi egin dio harrera. Gizonak ez dio begiratu ere egin. Pasa da albotik, eta han, ortuan, ispilu etzan handi bat. Edo hori iruditua zaio. Ez du jakin zehazki zer den, parera hurbildu den arte. Eguzkia islatzen duen aluminiozko zerbait. Plaka handi bat. Eta baratzaren bazterrean cdak. Arreta piztu dio horrek. Ez dut inoiz, ez du inoiz, eduki cdrik. Ez behintzat irakurgailurik. Ahizpak bai, eduki zituen lehenago, bere gelan gordeta daude liburuen alboan urte luzetan erabili ez dituenak. Bidean aurrera eginez, beste baratze batean, makila bati lotuta paper dirdaitsuz bildutako poltsa moduko bat. Funtzio bera beteko duela pentsatu du. Poltsak auto istripuetako tapaki horiek ekarri dizkit, dizkio, gogora. Pelikula zaharretan gorpuak estaltzeko erabiltzen direnak. Albistegietan Mediterraneotik erreskatatutako begiraden dardarak hotzetik babesteko erabiltzen diren horiek. Bere buruari galdetu dio ea inorentzat bilakatu ote diren askatasunaren sinboloa.

Nekaneren baratzetik pasa da aterpetxerako bueltan. Bila aritu da. Ez die erreparatu izan orain arte, baina han dira: cdak. Alboetara begiratu du, aterpetxeko kanpoko terrazan familia bat, haurrak belarretan jolasean. Aterpetxeko leihoetan ez du mugimendurik sumatu. Pasa du ataka, sartu da barrura. Baratzaren ertzetik egin du bidea, ildoak zapaldu gabe.

cd. Bizitza laburreko askakizuna. Berak sarean entzun izan du musika beti. Erosi egin du objekturen bat inoiz, biniloak batez ere, baina sarean entzun ostean soilik, talderen bati diruz laguntza ematearren. Erosita ere objektuak ez ditu behin ere erabili, ez du gailurik, sarean entzuten jarraitu izan du osteria ere.

Ezin izan dio tentazioari eutsi. Buelta eman die cdei. Marka litzateke gero, Mikel Laboarenak izatea.

HEMEN EGON ARTE ez du ulertu isiltasuna zer den. Alegia, hemen isiltasuna ezberdina da, hiriaren aldean hemen isiltasuna beste soinu batzuez osatua delako. Konturatzen naiz, konturatzen da, hiriko gaua autoz beteta dagoela. Iluntasuna zauritzen dituzten ahots ozenegiez. Espaloiak zartatzen dituzten sustrai ikusezinez. Inork gutxi erreparatzen die espaloietan inposatutako zuhaitzei, sustraiek nola altxatzen dituzten harlauzak. Eta belar matazak han-hemenka, eskaileretako hezeguneetan, hormigoari arnasa zulatuz.

Hemen isiltasuna txoria da. Saiatu arren ikusi ezin duen txoria. Izendatzen ez dakien txoria. Airean ezberdintzen saiatu arren, zenbat soinu ezberdin diren ez dakidan txoriak. Hemen txoriek ez dute autoek baino ozenago kantatu behar. Ez eta natura nahasia diren kale peatonaletan ere. Baten batek esango luke oinezkoentzako kaleetako filosofia badela zentzuzko bizimodu batera buelta bat. Baina beti harritzen du, harritzen nau, gizakiek zentzuak arrazoiarekin zentzugabetzeko gaitasun eternalak. Natura, ekologia, ezkerria.

Hemen hegazkinek zauritzen dute soilik zerua. Txorien isiltasunarekin nahasten da haien mantra, gezi karrankari bat bezala. Ez dakit, ez daki, hegazkinen artean ezberdintzen ere. Egongo dira aldeak seguru. Agian ez dakit txorien eta hegazkinen arteko aldea ere ikusten.

ENEKA KANPOALDEAN DAGO, terrazan eserita. Gutxi idazten du. Pantailaren ertzetik begiratzen du ingurua. Musika ozen bat entzuten du, entzuten dut. Ezaguna egiten zaion musika bat. Goizaldeko rave batean entzun litekeena. Edo agian ez. Agian lehentxeago entzungo litzatekeena, demagun lauretan. Ahots grabe bati loturiko in crescendoak. Ezeroso sentitu naiz, sentitu da. Ez zuen espero halakorik hemen. Musika hori ez dator bat inguruarekin goizeko hamaiketan. Maitane inguratu zaio, mahaiak jasotzen. “Eser naiteke?”, erantzunik espero ez duen galdera da, hemen gehienak bezala. Aurreko paisaiari so daude biak. Zigarroa piztu du Maitanek. “Bost minutu eta banoa”. “Lasai”, dio berak. Aurrean zuhaitzak, zuhaitzen gainetik mendiak. Berdearen ñabardurak. Eguzkiak itzala bultzatzen du haiek dauden lekurantz, apurka. Ondoko etxearen marra zuzena. Egurrezko makila okerrak aurreko muinoan, pertsona konkordunak bailiran, zuzen mantentzen saiatzen diren gorputz nekatuak. Eta musika hori. Zuhaitzen hostoen artetik sartzen den doinu ezagunegi hori.

“Ostirala”, dio Maitanek.

“Zer?”.

“Ostirala”.

Zintzarrien doinua entzun du bat-batean, ez dio orain arte erreparatu. Noiztik dago hor? Ez du animaliarik ikusten, baina gertu ibiliko dira. Doinu berri bat airean.

“Ikasleak hiritik bueltatzen diren eguna”.

Enekari ez zaio gustatu. Beldurra sartu zaio. Aurpegi ezagunen bat topatzeko izua.

IBILTZEAK BARRUKO ERREKAK bideratzen ditu itsasora. Ibiltze hutsak ordenatzen dizkio barrenak. Iragana zientzia fikzioa iruditzen zaio orain, etorkizunak baino areago.

Ez zuen ikusi etortzen. Amorratu egien du horrek.

Antton bada ezer esan nahi ez duen izen bat. Alegia, izen ikusezin bat. Normala, nolabait esateko. Lasaitasuna ematen duen izen bat, etxekoa. Jon, Mikel edo Xabi bezala. Normalean kostatzen da izen horiek oroitzea. Haien azpiko aurpegiak beti iruditu izan zaizkio antzekoak. Gogoan ditu bere ahizparen gelako mutilak. Gerora gizonak izango ziren mutilak. Gidariak, jefek, lankide hitzontziak. Botere gehiegi duten nagusi mediokreak. Liderrak. Politikogaiak. Inork nahi ez zuen ardura bat hartzeak boteredun bilakatu dituen ezusteko txiribuelaren jabeak.

Ez zaio harritzen ezizenak nahi izateak. Gerra izenak. Ezberdindu beharrak. Aurpegien pila horretatik aldendu beharrak. Eta batzuetan lortzen da. Egia da. Ezagutu ditu maitatzeko moduko bisaiak. Pertsona zintzoak. Ezizen txukun bat ez lortuta ere, ostiral arratsaldeko tarteak gozagarri egiten dizkizutenak. Baina beste batzuek jarraitzen dute hor, eta okerragoa dena: disimulatzen ikasten dute. Anttonek bezala.

Lagunez ere ezin fidatzeak amorratzen du. Izugarri.

NEKANERI OHEAN EGOKITZEN LAGUNDU DIO. Harrigarria da, hain txikia izanda, bere gorputzaren pisua.

“Zer den ekandua? Bazabiltza atzera ere zure galdera horiekin?”, Nekanek.

“Orain arte ez dizut galdetu”.

“Ez dakizu, ala?”.

“Ez”.

“Hemen inguruan oso ohikoa da ba”.

“Ni ikastolakoa naiz, Nekane”.

“Eta zer irakasten dizuete bertan?”.

“Ez dakit”. Zalantzan hasi naiz, hasi da, ea nork egiten dituen galdera hobeak. “Segur aski hizkuntzari eusten irakasten digute”.

“Eusten?”.

“Eusten”.

Nekanerekin ez dira elkarriketak haratago sekula joaten. Gustatzen zait, gustatzen zaio, hori.

“Ekanduak dira herrira kanpotik etorri eta bertakotu egin direnak”.

“Ni ekandua naiz orduan?”.

“Oraindik ez”. Isilik geratu da. “Baina bidean zara!”. Barrez lehertu da, gutxitan ikusi dut horrela, barre egin du berak ere. “Ekandua izateko txertatu egin behar zara bertako bizimoduan, bertako jendearekin. Orduan zara ekandua”.

“Eta hemen, ekandu asko dago, ala?”.

“Batzuk bai. Aspalditik ohitura egon da bertan ekanduak haien artean elkartzeko, etorkinen bazkariak egiteko”.

“Ekanduek bakarrik haien artean?”.

“Bai. Ikusgarriak eta ederrak izaten dira hitzordu horiek. Ikustea nola elkarrekin komunean ezer ez dutenek bat-batean bai, baduten”.

“Kuriosoa da”.

Isiltasunarekin erantzun dit, beste behin ere.

“Eta zergatik du izena honek Ekandu aterpetxea?”.

“Nik aldatu nion”.

“Aterpetxeari?”.

“Bai”.

“Nola zuen ba?”.

“Ongi-etorri”.

“Ongi-etorri? Ba hori gaizki ere ez da, ezta?”.

“Ez. Berez ez. Baina ez baitzen egia”.

“Eta nortzuk dira ba bertako ekanduak?”.

“Oraindik ez duzu asmatu?”. Isilunea. “Etxe honetan ekantzen dira nora ekandu ez dutenak”.

GERO ETA LASAIAGO egiten ditu Enekak mendi bueltak. Lehen errepide eta bidexka labirintoa zena orpo zelai zaio orain. Azkenaldian ahaztu ere egin du Maitaneri noranzkoa badaezpada adierazten. Makila soinean eramateak, hala ere, mundua ibiltzeko manera eman dio.

Paseotik bueltatu denean aterpetxe atarian ikusi duen Land Roverra ezagun egin zaio. Begiratu du mugikorrean, matrikula hatzekin anpliatu. Bera da. Taberna barrura sartu denean Maitaneren begiek bereak bilatzen dituztela sumatu du. Ez dago hitz egin beharrik, sakon arnastuko duela egin dio keinu. Ehiztariak txikitoa hartu du, eseri da mahaian egunkaria irakurtzera. “Ez du ez euskarazkoa irakurriko, kabroiak”, esan dio Maitaneri ahapeka Enekak, barrara sartzerakoan. “Egon adi, zu baino euskarazko hitz gehiago ezagutzen ditu eta”. “Bai, eta zertarako erabili”. Gizonak ez du une bakar batean ere begirada barrara eraman. “Zeozer esan dizu?”, Enekak Maitaneri. “Bai. Beltza berezia. Baina nafarra”. Barre egin dute biek. “Nire ustez terrenoa markatu, besterik ez du nahi. Ikus dezagun berak badakiela non gauden”. “Hori bagenekien ba aurretik ere”. “Berdin dio, ez egin kasu. Horrelakoekin egin beharrekoak egin, eta listo. Isildu ez, baina gero ez tematu, ez du merezi”. Eneka atzeko gelara joan da une batez, eta zerrauts pixka bat bota da atariaren ondoan. “Baina zer arraio...”, hasi da Maitane. “Badaezpada, izkinan txiza egiteko beharra duen”, Enekak. “Ya te vale...”.

MAITANEK ZIKLOI BAT BEZALA esnatu du Eneka.

“Land Roverra berriz ere baso inguruan ikusi dute. Bagoaz?”.

“Itxoin. Guardak aurrekoan horrelakoetan berari deitzeko esan zidan. Ziztu bizian pasako zela. Horixe egingo dut. Uler dezatela elkar”.

“Ados”.

“Utikan autoritateak, baina tira, hau guarda bat da, egin dezala bere lana”.

“Ehiztariari ez zaio gustatuko. Seguru elkar ezagutzen dutela”.

“Lasai. Ni kalekumea naiz, ez zait bizilagunek esango dutena piperrik inporta. Nik deituko diot, gorrota nazatela ni”.

IRANTZUK ORDU HONETAN mostoa nahiago du. “Nik uste dut badela amorru halako bat ere”. “Aurreko belaunaldietan?”. “Bai. Tira, nire gurasoenean ez hainbeste, bi munduren arteko trantsizioa izan zirelako. Baina aiton-amonenean bai. Nire etxean bai behintzat. Ikusi dute mundu hau desegiten, baina modu antolatuan, goitik behera. Industria bultzatzea erabaki zen hasiera batean nekazari txikiak enpresa handien makulu bilakatu ziren, eta gero ezer ez”. Eneka pentsakor geratu da, ulertu nahian bezala. “Lehenengo sektoreari ez zaio laguntzen, baina lehenengo sektoretik datorrena da egunero jaten duguna. Eta ez genuke ahaztu behar nondik gatozen. Bakoitzaren kasuan ikusi beharko da, baina seguru nago pertsona bakoitzaren historian atzera eginda, beti badela nekazari bat”.

KRISTAL HAUTSIEN SOINUAK iratzarri ditu. “Zer izan da hori?”. Eneka ohetik altxa denerako Maitane sumatu du jada behean, Nekaneri gelako atetik lasai egoteko esaten ari zaio. Une horretan kristal hautsi gehiago, tabernako leiho bat lehertu da. “Makurtu!”, egin dio oihu Maitanek, bera eskaileretatik azaldu orduko. Enekak ez du erreakzionatu, izoztuta bezala begiratu dio Maitaneri, bere izu aurpegian benetan zer egin behar lukeen irakurri nahian bezala. Hirugarren leihoak eztanda egin duenean, biek elkarren eskutik heldu eta paretaren kontra jarri dira lurrian. “Norbait ari zaigu tiroka”, esan du Maitanek. Logeletako atetik Leo eta Lokatz azaldu dira, “Zer ari da gertatzen?”, “Segi gora!”, agindu die Maitanek. Goialdetik negar hotsak entzun dira, Eurekaren alabarenak. “Joan azkar laguntzera, eta makurtu denak leihoetatik urrun”. Badoaz. “Zer egin dezakegu?”, dio Enekak. Ingurura begiratu du, erantzun bat topatu nahian bezala. “Ezer ez, eutsi, pasako da. Atea itxita dago, hemen salbu gaude”. Atea hitza entzutearekin batera hotzikara sentitu du Enekak. Maitanek berehala jakin du zer pasa zaion burutik, “Itxaron, ez joan!”, baina Eneka ziztuan altxatu da. Korrika doa atzeko atera, etxekoentzat beti zabalik den horretara; itxi egin nahi du, berandu baino lehen. Ilunpetan egin du bidea, ate horretara ematen duten eskaileretan ilunpea da nagusi. Iritsi da, eta bertan atea zabalik. Joan da korrika, itxi ditu krisketak. Beranduegi, ordea; bira ematean aurrez aurre topatu du ehiztaria, eskopeta eskuetan duela. Biak elkarri begira geratu dira. Enekak hartu du mendiko makila, aterkiekin batera uzten dituzten ate ondoko ontzitik. Erridikulua sentitu da, ehiztariak eskopeta eskuetan duela. Beste leiho batek egin du eztanda, ordea, eskaileretan. Ehiztariak besotik hartu du, eta keinu batez makurtzeko eskatu. Eskopeta paratu du leiho hautsian, tiro egin du airera. “Nor da hor?”. Isiltasuna. “Alde hemendik berehala!”, egin du oihu. Beste leiho hautsi bat, gertu oraingoan, kristal hautsiek burura jausi zaizkio Enekari oraingoan. “Baina ze...”, ehiztariak kristal hautsien artean bilatu du. “Zer gertatzen da?”. “Ez dira balak”. Enekak ez du ulertzen. “Zer dira?”. Ehiztariak lurra arakatzen. “Harriak?”. “Ezta ere. Ez dut behin ere halakorik ikusi”.

“Eneka!”, entzun da kanpotik.

“Joder”, izozmendia, “Antton da”.

“Atera zaitez eta ez zaio inori ezer gertatuko. Hau gure arteko kontua da”.

Maitane azaldu da haien ondora. Buruaz ezetz esan dio. “Joder”, Enekak. “Ezin zaituztet arriskuan jarri”. “Ni joango naiz zurekin”, ehiztariak. “Ez dut zure laguntzarik eskatu”, lehor Enekak. “Ez, ez egin ezer”, Maitanek Enekari, “elkarrekin aterako gara honetatik, ados?”. Une horretan, tabernako atea zabaltzen entzun dute. Atera orduko piztu da ezkaratzeko argi automatikoa. “Baina ze...”. Maitane korrika joan da tabernara. “Laostia, Nekane da”. Kanpoan da, aulki gurpildunari eskuakin eraginda.

“Hau Eneka eta bion arteko kontua da!”, Anttonen ahotsak iluntasunetik.

Nekane kantuan hasi da. Maitane tabernarantz joan da, “Hau surrealista da”, Enekari agindu “itxaron apur batean hemen, mesedez”. Enekak bazterretik begiratu eta Maitane ikusi du Nekaneren aulki atzean kokatzen. Elkarri begiratu diote, baina ez dute atzera egiteko imintziorik egin. Eskailera hotsak entzun ditu berehala; badatoz Leo eta Lokatz. Kanpora atera eta aukiaren alboetan jarri dira, kantuan hasi dira haiek ere. “Zoro halakoak...”, entzun du Maitane, baina kantuan hasi da bera ere. Gero eta arinago, gero eta ozenago.

“Eneka...!” entzun da ilunean. Kantuak zalaparta eragin du oster, inguruko argiak pizten hasi dira, kale bakarreko etxeetakoak, baserrietakoak. Enekak zalantza egin du, egoera ulertu ezinik, lurrera iltzaturik. Ehiztaria sumatu du alboan; eskopeta utzi du bere ondoan, eta eskaileren azpiko trasteen artean hasi da arakatzen. Katilua eta koilara eskuetan dituela atera da kanpora, eta haiek jotzen hasi. Pixkanaka, soinu bera entzuten hasi da etxeetatik ere. Gero eta leiuo gehiago, gero eta ate gehiago, gero eta zalaparta gehiago.

SARTU DA, SARTU NAIZ, Nekaneren gelara. Ohea hutsik, aulki gurpilduna hutsik, armairua hutsik. Maitaneren ahotsak hartu du, hartu nau, ezustean atzetik. “Ez duzu zure gela izaterik nahi?”. Besarkatu dut, besarkatu du, hitzik gabeko airea besarkatzen den bezala. “Idatziko duzu zerbait guri buruz, ezta?”. “Ez egin zalantzarik”. “Tori, zer gerta ere. Agian honen beharra duen norbait ezagutuko duzu noizbait”. Paper zati txiki bat, telefono batekin. Hartu egin du, “Ez dizut kale egingo, kalekumea banaiz ere”.